

2023KO KUDEAKETA TXOSTENA

2023an, ur-ekoizpena 28.939.303 m³-koa izan da, 2022an baino % 8,54 txikiagoa eta azken bost urteetako batezbestekoa baino % 4,21 txikiagoa. Gauden mende honetako ekoizpen baxuena da, hain zuzen ere.

Alderdi aipagarriena izan da ekoizpena murriztu izana maiatz eta irail artean, ekaineko ekaitzengatik, udakoak izan ohi diren kontsumoak atzeratzea eragin baitzuten, eta irail hasierako euri zakar eta biziengatik, udazkeneko kontsumoaren aldia aurreratu baitzuten. Hartara, 2022arekin alderatuta, bereziki bestelakoa izan zen ekoizpen hori, orduan prezipitazio eskasek eta maiatz eta abuztu arteko tenperatura altuek ekarri baitzuten agorraldia aurreratzea eta kontsumoa handitzea.

Ur-ekoizpen handiena abuztuko laugarren astean egin zen, Iruñerrian izan zen bero-bolada bakarrarekin batera. Zehazki, abuztuaren 22a, asteartea, kontsumo handieneko eguna izan zen, 124.027 m³-rekin. Ur-ekoizpen txikiena, berriz, abendu 4a, astelehena, kontsumo txikieneko eguna izan zen, 53.416 m³-rekin.

Eugin, prezipitazio metatua 1.413 mm-koa izan da, aurreko 15 urteetako batezbestekoa baino % 5,4 txikiagoa. Otsail, martxo eta maiatzeko prezipitazio baxuak, eta iraileko altuak nabarmendu behar dira.

Ebroko Ur Konfederazioak, Lehorteko Plan Bereziaren barnean, arro desberdinen egoera jasotzen duen txosten bat ematen du argitara hilero. Zehazki, 16. zenbakiko arroa, Ega, Arga eta Irati ibaiei dagokiena, maiatzean lehorte luzeko egoeran eta, urtegien erreserban, aurrealarteko egoeran egotetik ekainean normaltasuneko egoeran egotera igaro zen, eta urtearen amaiera arte iraun zuen. Artetako, Eugiko eta Itoizko gure hornidura-iturrien egoera onak adierazten du egoera normala dela eta hornidura bermatuta dagoela.

Urtean zehar uraren jatorria hau izan da:

- Egillor % 33,3 (9.634.510 m³)
- Urtasun % 39,1 (11.314.048 m³)
- Tiebas % 27,6 (7.990.542 m³)

2023an, ur-ekoizpenari dagokion alderdi esanguratsuena izan da 2+1 ustiapen-eredua lanean hasi izana, hau da, urte osoan soil-soilik edateko uren bi araztegiarekin lan egitea eta hirugarrena erreserban uztea. Lanean aritzen diren bi araztegiaren ustiapen-eredu hau orain arte azaro eta maiatz arteko aldirako baino ez da erabili izan Iruñerrian (Urtasungo eta Egillorko plantak), ekainetik urrira hirugarren planta (Tiebas) jartzen baitzen martxan, udako hornidura osatzeko.

Eskualdeko hornidura-sarean azken urte honetan zenbait obra egin dira, eta horrek ahalbidetu du aurtengo ekain eta urri artean Egillorko planta, Artetako iturburuko ura tratatzen duena, erreserban utzi ahal izatea, eta uda-sasoi horretan Urtasungo eta Tiebasko plantekin hornitu ahal izatea Iruñerriko Mankomunitateak uraren zerbitzua ematen duen eremu osoa. Udako eredu honekin eskualdea hornitzeko sistema askoz ere sendoagoa lortzen dugu, eta Artetako iturburuaren emariak, txikitzen joaten diren emariak, bazter utzi ditzakegu eta, gainera, Udarbe ibaian emari

ekologikoa bermatu ahal dugu, izan ere, sarritan oso balio baxuetan gelditzen baitzen, agorraldi bete-betean iturburuaren % 80 inguru hartzean.

Horniduraren kalitatea kontrolatzeari dagokionez, Kalitatea Kontrolatzeko laborategiek ENACen (Egiaztatze Erakunde Nazionala) auditoretza egin dute 2023an eta UNE EN ISO 17025 araua betetzea. Bi laborategi horiek auditoretza gainditu dute, eta egiaztatzearen norainokoa zabaldu dute, hiru EUTEetan edateko uraren kalitatea determinatu eta ziurtatzean etengabeko hobekuntza bermatzeko, eta bai araztutako urarena Arazuriko HUAN eta Iruñerriko gainerako hondakin-uren araztegietan eta arazketa sistemetan.

Horniduraren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategian 2023an egindako kontrolak, programatuta zeudenak eta IZSAko hainbat sailek eskatu dituztenak, 85.803 parametro izan dira, 6.736 lagini zegozkionak. Hornidura-sarea kontrolatzeari dagokion informazioa Kontsumoko Uren Informazio Nazionalerako Sisteman inplementatu da (SINAC).

Uraren Osasun Plana hedatzen jarraitu da, 2013an egindako diagnostikoko arrisku adierazgarriak minimizatuta. Urtean zehar egindako mugarri garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira, gauzatutako gainerako proiektuen artean:

- Urtasungo EUTE berritzeko III. fasea gauzatzen ari da. Hain zuzen, errektiboen aretoa berrituko da eta ozono bidezko tratamendu berria izango da. Aurreikusita dago lanak 2024aren erdialdera amaitzea.
- Osasun Plana 3/2023 Errege Dekretura egokitzean lan egiten ari gara, hornidura-sistemako prozedura desberdinak moldatzeko.

Saneamendua eta arazketa

Arazketarekin lotuta, Arazuriko HUAN, hondakin-ur influentearen bolumena 2023an 34.669.820 m³ izan da, 2022an baino % 12,3 gehiago eta azken 5 urteetako batezbestekoa baino % 4,9 gutxiago. Urteko karga kutsatzailea 511.612 biztanle baliokidekoa izan da, aurreko urtekoa baino % 1,7 handiagoa.

41.079 tona lohi sortu dira, aurreko urteko 42.041 tonak baino pitin bat gutxiago. Halaber, 5.499.238 Nm³ biogas sortu dira, 2022an baino % 6,8 gutxiago eta azken 5 urteetako batezbestekoa baino % 0,6 gutxiago. Biogasa erregai moduan erabilita energia elektrikoa ekoiztea horrekin bat etorri da: % 103ko autokontsumoa lortu da, aurreko urteko % 105ekoaren antzekoa.

Arazketaren errendimendu handiei eutsi zaie gai organikoetan eta nutrienteetan, eta, hortaz, Ebroko Ur Konfederazioak ezartzen dituen isurtze-mugak bete dira.

Ezarrita dagoen industria-isurketen kontrola egiteko planari eutsi zaio, saneamendu-sareek eta arazketa-sistemek (Arazuriko HUA eta tokiko araztegi txikiak) ongi funtzionatzen dutela ziurtatzeko. Saneamenduaren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiak, 2023an zehar, parametroen 102.967 kontrol egin ditu, 10.318 lagini zegozkienak.

2021-2024 aldirako III. Saneamendu eta Arazketa Plana betetzeko lantaldearen lanak jarraitzen du. Bertan, hain zuzen, saneamenduaren eta arazketaren gaian hurrengo urteetan gauzatu beharreko lan-ildo nagusiak jasotzen dira. Plana 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren barnean kokatu da, eta jarduketa garrantzitsuenak izango dira tokiko arazketan hobekuntzak egitea, jarduketak egitea Arazuriko HUAN eta kolektore berriak egitea. Beriaindik Biurrun-Olkozterako kolektorea nabarmendu behar da, I. fasea (Tiebas-Campanaseraino) gauzatu dena. Estatuak interes orokorreko deklaratu zuen 2009an. II. fasea 2024an gauzatuko da, Biurrun eta Olkozteraino. Halaber, aipatu behar da lehen seihilekoan Berriobeitiko kolektorea amaitu zela, Arazuriko HUAren eskualde-sarean sartu dena. Kolektore horrek berekin ekarri zuen Berriobeitiko, Berriogoitiko eta Elkartre-Ballariaingo hobiak kentzea.

Saneamendua hobetzen jarraitzeko, urtean zehar Bidaurreta-Ziritza-Etxarriko hustubidearen eta arazketaren obrak bukatu ziren, eta zegozkien hobiak kendu ziren. Egun, tokiko 8 HUA dauzkagu, eta herri horien arazketa hobea izatea ekartzen dute.

Arazuriko HUAn egindako obrekin lotuta, lehen mailako 5. digestorea eraiki izana nabarmendu behar da. Kudeaketa hobe eta digestio-sistema mantentzea ahalbide-tuko du, eta bai prozesua optimizatzea eta biogasa lortzea balorizatze-ko.

	2021	2022	2023
Ur-ekoizpena, guztira (m³)	29.812.753	31.484.905	28.939.572

Analisi bidezko kontrola

Analisi bidezko kontrola	Laginak	Parametroak
Hornidura-iturriak	416	9.397
Ura edateko on bihurtzeko prozesua	1.749	6.015
Ura, EUTetik irtetea	328	11.800
Ur-biltegiak	791	25.592
Banaketa-sarea	360	10.796
Kontsumoko iturria	541	9.581
Isuriak ibilgura	157	560
Eskaerak (IZSA)	322	2.189
Eskaerak (kanpokoak)	179	341
Kalitate-kontrola eta barnekoak, laborategia	1.893	9.532
Kontrolak, guztira	6.736	85.803

Kontrolen emaitzak

Banaketa-sarea eta kontsumoko iturria	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	% 100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	% 99,3
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	% 99,2
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	% 100

Edateko uren araztegiak (EUTEak)	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	% 100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	% 100
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	% 99,9
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	% 100

Kontsumoa 2023an (m³)

		2021	2022	2023
		m³	m³	m³
Zerbitzu publikoak	Administrazio publikoak	471.501	526.628	498.267
	Udal-zerbitzuak	836.341	923.155	910.353
	Interes sozialeko erabilera	537.719	561.137	555.444
Zerbitzu publikoak, guztira		1.845.561	2.010.920	1.964.064
Merkataritza-industria	Nekazaritza eta abeltzaintza	2.717	4.037	4.597
	Merkataritza	3.284.406	3.761.817	3.605.500
	Merkataritza/ureztatzea	45.651	48.230	39.252
	Suteak, aho zigilatutak	1	29	213
	Suteak, kontagailuarekin	29.129	23.884	20.843

	Industria	1.533.927	1.604.288	1.545.380
	Jarduerarik gabeko lokalak	1	0	0
	Obrak	133.371	159.964	162.728
	Behin-behineko zerbitzu berezia	19.577	24.154	22.428
Merkataritza-industria, guztira		5.048.775	5.626.403	5.400.941
Etxebizitzak	Etxebizitzak	13.075.691	12.603.988	12.422.981
	Etxebizitzak/merkataritza	28.677	30.045	27.589
	Etxebizitzak/merkataritza/ureztatzea	12.935	10.811	6.990
	Etxebizitzak/ureztatzea	2.819.103	3.106.457	2.670.527
Etxebizitzak, guztira		15.936.406	15.751.301	15.128.087
Apaingarriak-ureztatzea	Iturriak	52.178	65.424	44.393
	Aisiako baratzeak	65.836	82.883	56.692
	Ureztatze pribatua	698.018	997.401	654.257
	Ureztatze publikoa	485.254	649.209	462.797
	Udal-ureztatzea	2.197.646	2.934.062	1.917.954
Apaingarriak-ureztatzea, guztira		3.498.932	4.728.979	3.136.093
Hornidura tokiko erakundeei	Hornidura tokiko erakundeei	69.718	5.838	650
Hornidura tokiko erakundeei, guztira		69.718	5.838	650
Kontsumoa, guztira		26.399.392	28.123.441	25.629.835

Kontsumoa (litroak biztanle eta eguneko)

	2021	2022	2023
Etxebizitzetakoak	115	115	109
Industria-merkataritza	35	40	38
Iturriak eta ureztatzeak	25	34	23
Kontsumoaren emaitzak, guztira	190	205	185

Saneamendua eta arazketa

Arazuriko HUAren errendimenduak	2021	2022	2023
Tratatutako ur-emaria	35.572.770	30.878.475	34.669.820
Solido esekiak	% 96,9	% 97,5	% 96,1
Oxigeno-eskari kimikoa	% 94,4	% 94,7	% 93,6
Oxigeno-eskari biokimikoa	% 96,2	% 96,3	% 95,3
Nitrogenoa	% 80,4	% 81,6	% 79,5
Fosforoa	% 88,1	% 89,2	% 79,5

Analisi bidezko kontrola laborategian	2021		2022		2023	
	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
HUAko lohien lineak	3.374	8.801	3.382	9.377	3.348	9.975
Industria-isurketak	929	12.527	836	19.541	781	20.532
Uraren linea, HUA	801	19.647	207	2.794	198	2.650
HUA txikiak	224	2.688	36	938	37	1.011
Ibilguen kontrola	39	940	839	10.826	851	10.781
Lohi deshidratatua eta konposta	435	4.446	471	2.688	408	2.450
Barneko kontrola, guztira	5.802	49.049	5.771	47.091	5.623	47.399
Kanpoko analisiak eta zenbait	5.241	54.574	5.166	54.699	4.695	55.568
Laborategiko analisiak, guztira	11.043	103.623	10.937	101.760	10.318	102.967

	2021	2022	2023
Industria-isurketen kontrola			
Ikuskatzeak industriei	36	25	27
Ikuskatzeak tokiko araztegiei	210	178	198
Jarduera sailkatuen espedienteak	161	124	104
Beste txosten batzuk	53	48	45
Isurketa etenen baimenak	100	75	85
Ibilgura isurtzeko baimenak	32	10	7

Kontrola eta mantentzea prozesuan	2021	2022	2023
Ekipoak, guztira, linean	40	41	45
OTen kopurua	401	402	403
Ratio zuzentzailea/prebentziozkoa	% 3,0	% 2,5	% 2,0
Prebentziozkoa betetzearen ratioa	% 98,5	% 100	% 100

Hornidura-iturriak

Artetako iturburua

Udarbe ibaiaren buruan.

- Biltzeko azalera: 100 km
- Iturburuaren batez besteko emaria: 3.328 l/s
- Hornidurarako baliatutako batez besteko emaria: 334 l/s
- Energia hidroelektrikoa ekoizteko baliatutako batez besteko emaria: 1.668 l/s
- Udarbe ibaira isuritako batez besteko emaria: 1.325 l/s

Eugiko urtegia

Arga ibaiaren buruan.

- Oinplano makotuan duen grabitate-presa
- Ibaiaren mailaren gaineko garaiera: 44,3 m
- Luzera: 252 m.
- Presaren bolumena: 21 hm³
- Kota maximoa: 628 m.
- Azalera: 123 ha
- Batez bestek sakonera: 18 m
- Bertan ura zenbat egoten den: 2-5 hilabete

Itoizko urtegia

Kokapena: Irati ibaia (Longida ibarra)

- Presa-mota: grabitatekoa, hormigoi arruntarekin egina
- Zimenduen gaineko garaiera handiena: 122 m
- Bururatze-luzera: 525 m
- Bururatze-kota: 592 m
- Gehieneko mailan normalean estalita dagoen azalera: 1.100 ha
- Ur-mailak normalean gehienez duen edukiera: 418 hm³

Edateko ura tratatzea

- Urtasungo EUTE. Tratatzeko ahalmena: 1.050 l/s
- Egillorko EUTE. Tratatzeko ahalmena: 800 l/s
- Tiebasko EUTE. Tratatzeko ahalmena: 1.000 l/s

Hornidura-sarea

- Luzera: 1.498 km
- Harguneak: 43.851
- Ur-biltegiak: 140 unitate. Edukiera: 273.164 m³
- Ponpatzeak: 55
- Emari-neurgailuak: 1.255

Saneamendu-sarea

- Luzera: 1.738 km
- Harguneak: 74.269

Ekaitz-urak biltzeko biltegiak

- Txantreako ekaitz-urak biltzeko biltegiak
- V=3.000 m³ C2 kolektorera

Hondakin-uretarako instalazioak

	Ezaugarriak	Kop.	Zerbitzua hartzen duten biztanleak
Arazuriko HUA	Tratamendu osoa: lehen mailakoa + biologikoa (nitrifikazio desfosforizazioarekin) Biosolidoak birziklatzeko planta, kogenerazio-planta	1	506.067
HUA txikiak		7	
Hobi septikoak	Iragazki biologikoa dutenak	106	-